

Xedapen Orokorrak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

110

264/2006 DEKRETUA, abenduaren 26koa, Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoaren pentzutan borondatezko euskal lankideei laguntzak ematea arautzen duen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena.

Maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuaren bidez Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoaren pentzutan borondatezko euskal lankideei laguntzak ematea arautu zen.

Aipatu dekretuaren helburuetako bat nazioarteko lankidetzatik eratorritako erronka berriei borondatezko lankideari emandako laguntzaren bidez erantzutea izan zen. Erabat bidezko bilakatu zen bere lana egoki betetzeko borondatezko lankidearen izaera profesionala indartzea, horretarako beharrezko teknikari eta giza profilak, eta finantza- eta lan-segurtasuna eskatuz.

Borondatezko lankideen Estatutua ezartzen duen apirilaren 28ko 519/2006 Errege Dekretua maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuan ezarritako xedapenak baieztatzen eta indartzen dituen esparru juridikoa da.

Ondorioz, maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen dekretu honek aurreko xedapen oro mantentzen du, eta eskubide eta betebeharreri dagozkien araudiari buruzkoak sartzen ditu Borondatezko lankideen Estatutua ezartzen duen apirilaren 28ko 519/2006 Errege Dekretuan.

Horrenbestez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua.— Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoaren pentzutan borondatezko euskal lankideei laguntzak ematea arautzen duen maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuaren 3.1 artikuluari ondoko idatz-zatia gehitzen zaio:

«g) Borondatezko lankideen eskubide eta betebeharreri buruzko arautegia errespetatzea eta, bereziki, Borondatezko lankideen Estatutua ezartzen duen apirilaren 28ko 519/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako arauak betetzea.»

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

110

DECRETO 264/2006, de 26 de diciembre, de segunda modificación del Decreto por el que se regulan las ayudas a los/as cooperantes vascos/as con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda para el Desarrollo.

Mediante el Decreto 124/2005, de 31 de mayo, se regulan las ayudas a los/as cooperantes vascos/as con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda para el Desarrollo.

Uno de los objetivos que dieron lugar al mencionado Decreto fue el de responder a los nuevos retos planteados por la cooperación internacional mediante el apoyo a la figura del cooperante profesional. Se hacía del todo pertinente el refuerzo de la dimensión profesional del cooperante mediante la exigencia de un perfil técnico y humano adecuados para el correcto desempeño de su labor, así como la de ofrecer seguridades financieras y laborales.

El Real Decreto 519/2006, de 28 de abril, por el que se establece el Estatuto de los cooperantes, constituye un marco jurídico que afirma y refuerza las disposiciones establecidas en el Decreto 124/2005, de 31 de mayo.

En consecuencia, este Decreto de segunda modificación del Decreto 124/2005, de 31 de mayo, mantiene todas sus disposiciones e incluye las relativas a la normativa sobre derechos y obligaciones contemplada en el Real Decreto 519/2006, de 28 de abril, por el que se establece el Estatuto de los cooperantes.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 26 de diciembre de 2006,

DISPONGO:

Artículo primero.— Se añade un apartado al artículo 3.1 del Decreto 124/2005, de 31 de mayo, que regula las ayudas a los/as cooperantes vascos/as con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda para el Desarrollo, con la siguiente redacción:

«g) Respetar la normativa sobre derechos y obligaciones de los/as cooperantes y, específicamente, cumplir las normas previstas en el Real Decreto 519/2006, de 28 de abril, por el que se establece el Estatuto de los cooperantes.»

Bigarren artikulua.— Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoaren pentzutan borondatezko euskal lankideei laguntzak ematea arautzen duen maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuaren 3.2 artikuluari ondoko idatz-zatia gehitzen zaio:

«g) Borondatezko lankideen eskubide eta betebeharrak buruzko arautegia errespetatzea eta, bereziki, Borondatezko lankideen Estatutua ezartzen duen apirilaren 28ko 519/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako arauak betetzea.»

Hirugarren artikulua.— Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoaren pentzutan borondatezko euskal lankideei laguntzak ematea arautzen duen maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuaren 4. artikuluari ondoko hiru idatz-zatiak gehitzen zaizkio:

«h) Borondatezko lankideak eta erakunde eskatzaileak laneko aitzinkontratu edo kontratu bat sinatu izana, Borondatezko lankideen Estatutua ezartzen duen apirilaren 28ko 519/2006 Errege Dekretuaren 4. artikuluan zehaztutakoaren arabera gauzatua.

i) Borondatezko lankideak eta erakunde eskatzaileak destinoko herrialdean prestazioa burutzeko jardueraren baldintza bereziak zehazten dituen akordio osagarri bat sinatu izana; akordio horrek Borondatezko lankideen Estatutua ezartzen duen apirilaren 28ko 519/2006 Errege Dekretuaren 5.3 artikuluan ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du. Aipatu akordioa lan-kontratuan eranskin gisa sartuko da, eta bere zati izango da.

j) Borondatezko langilea aseguratzekeo konpromisoa barne sartzea, Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziak kontrataturiko aseguru kolektibo orokorrera atxikiz edo Borondatezko lankideen Estatutua ezartzen duen apirilaren 28ko 519/2006 Errege Dekretuaren 10.1.e) artikuluan aurreikusitako gertakizunak bete beharko dituen poliza sinatuz.»

Laugarren artikulua.— Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoaren pentzutan borondatezko euskal lankideei laguntzak ematea arautzen duen maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuaren 8.2 artikulua aldatzen da. Honela idatzita geratzen da:

«Fondo hauek 7. artikuluan aurreikusitako diruz lagun daitezkeen gastuak ordaintzera bideratuko dira osorik, gastu horiek Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari ondoko agirien igorritik egiaztatuko direlarik: borondatezko lankidearekin gauzatutako lan-kontratuaren jatorrizko ale bat, eta, honen eranskin gisa, prestazioa burutzeko akordio osagarria; ondoko agirien kopia sinpleak: aseguru kolektibora atxikita dagoenaren agiriarena edo aseguru-poliza beregainarena, ordaindutako nominena, Gizarte Segurantzaren ordaindu izanaren (TC1 eta TC2 dokumentuak)

Artículo segundo.— Se añade un apartado al artículo 3.2 del Decreto 124/2005, de 31 de mayo, por el que se regulan las ayudas a los/as cooperantes vascos/as con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda para el Desarrollo, con la siguiente redacción:

«g) Respetar la normativa sobre los derechos y obligaciones de los/as cooperantes y, específicamente, cumplir las normas previstas en el Real Decreto 519/2006, de 28 de abril, por el que se establece el Estatuto de los cooperantes.»

Artículo tercero.— Se añaden tres apartados al artículo 4 del Decreto 124/2005, de 31 de mayo, que regula las ayudas a los/as cooperantes vascos/as con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda para el Desarrollo, con la siguiente redacción:

«h) Tener suscrito un precontrato o contrato de trabajo entre la persona cooperante y la entidad solicitante, que deberá formalizarse de conformidad con lo señalado en el artículo 4 del Real Decreto 519/2006, de 28 de abril, que establece el Estatuto de los Cooperantes.

i) Tener suscrito entre la persona cooperante y la entidad solicitante un acuerdo complementario para la realización de la prestación que especifique las condiciones especiales de la acción en el país de destino y que deberá tener el contenido mínimo fijado en el artículo 5.3 del Real Decreto 519/2006, de 28 de abril, que establece el Estatuto de los Cooperantes. Dicho acuerdo se incluirá como anexo en el correspondiente contrato de trabajo, del que formará parte.

j) Incluir un compromiso de aseguramiento del/la cooperante mediante la adhesión al seguro general colectivo contratado por la Agencia Española de Cooperación Internacional o mediante la suscripción de una póliza que en todo caso deberá cumplir las contingencias contempladas en el artículo 10.1.e) del Real Decreto 519/2006, de 28 de abril, por el que se establece el Estatuto de los cooperantes.»

Artículo cuarto.— Se modifica el artículo 8.2 del Decreto 124/2005, de 31 de mayo, que regula las ayudas a los/as cooperantes vascos/as con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda para el Desarrollo, que queda redactado en los siguientes términos:

«Estos fondos deberán ser destinados íntegramente a sufragar los gastos subvencionables contemplados en el artículo 7, justificándose éstos documentalmete a través del envío a la Dirección de Cooperación al Desarrollo de un ejemplar original del contrato de trabajo formalizado con el/la cooperante, incluido en él como anexo el acuerdo complementario para la realización de la prestación, junto con copias simples del documento de adhesión al seguro colectivo o de la póliza independiente de seguro, de las nóminas pagadas, de los justificantes de cotización a la Se-

eta bestelako gastuen fakturak, eta geografikoki dagokion kontsuletxe edo enbaxadan izena emana dagoela egiaztatzen duen agiriarena».

Bosgarren artikulua.– Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoaren pentzutan borondatezko euskal lankideei laguntzak ematea arautzen duen maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuaren lehenengo azken xedapena aldatzen da. Honela idatzita geratzen da:

«Dekretu honetan aurreikusitako gabe dagoen guztian Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da, baita Borondatezko lankideen Estatutua ezartzen duen apirilaren 28ko 519/2006 Errege Dekretua ere».

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko abenduaren 26an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

guridad Social con sus correspondientes TC1 y TC2 y de las facturas correspondientes a otros gastos, así como del documento acreditativo de la inscripción en el consulado o embajada que geográficamente corresponda».

Artículo quinto.– Se modifica la Disposición Final Primera del Decreto 124/2005, de 31 de mayo, que regula las ayudas a los/as cooperantes vascos/as con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda para el Desarrollo, que queda redactada en los siguientes términos:

«En todo lo no previsto en este Decreto será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, así como el Real Decreto 519/2006, de 28 de abril, por que se establece el Estatuto de los Cooperantes».

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de diciembre de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.